



2012 OROITIDAZKIA



EUSKALTZAINDIA

Plaza Barria, 15
48005 Bilbo

Tel.: 94 415 81 55
Fax: 94 415 81 44

info@euskaltzaindia.net
www.euskaltzaindia.net

AURKEZPENA	3
1. Erakundearen jarduerak	5
I. Barne jarduera	5
II. Kanpoko jarduerak	16
2. Akademia jarduera	23
I. Hiztegegintza	24
II. Gramatika	28
III. Dialektologia	28
IV. Onomastika	30
V. Literatura	35
VI. Jagon saila	37
VI.I. Corpus batzordea	
VI.II. Euskalkien lantaldea	
VI.III. Sustapen batzordea	
VI.IV. <i>Joanes Etxeberri</i> egitasmoa	
VII. Egiturazko batzordeak	39
VII.I. Azkue Biblioteka batzordea	
VII.II. IKT batzordea	
VII.III. <i>Euskaltzaindiaren Historia</i> egitasmoa	
VII.IV. <i>Erlea</i> aldizkaria	
VIII. R. M. Azkue sariak	40
3. Erakundearen zerbitzuak	42
I. Azkue Biblioteka	43
II. Onomastika zerbitzua	45
III. Argitalpen zerbitzua	46
IV. Argitalpenen salmenta zerbitzua	49
V. IKT zerbitzua	50
VI. Pentsa eta komunikazio zerbitzua	50
VII. <i>Jagonet</i> zerbitzua	50
4. Herri administrazio eta erakundeak	51
5. Webgunea eta gizarteratze lana	53
6. Euskaltzaindiaren Balantzea eta Galdu-irabazien kontua	57
I. Balantzea	58
II. Galdu-irabazien kontua	59



Aurkezpena

Xabier Kintana Urtiaga, *Euskaltzaindiko idazkaria*



Euskaltzaindiaren 2012ko oroitidazkia aurkeztean, ororen aitzinean, ondo kontuan eduki behar da joan den urte osoan geure gainean pairatu dugun ekonomia egoera iluna, krisi latzarekin. Horren eragin ertunaren ondorioz, Euskaltzaindiaren ekonomiaren oinarria bermatzen duten erakundeek, Estatuak, Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-diputazioek, uste eta espero zuten baino diru gutxiago bildu dute zergetan, eta, gainera, krisiaren beraren kausaz, are premia sozial gehiago eduki dituzte aurrean, lagundu eta konpontzeko. Holakoetan, jakina denez, irizpide argia erabiltzen dute politikariek, eta kultura, eskuarki, beti gelditzen da azken postuetan, are gehiago, horiek zinema, teatroa, musika, dantzaldiak, kirolak, zezenketak eta beste antze 'ikusgarriagoak' baldin badira.

Baina ez goaz kexatzen, besteak beste, horretarako sasoia joan eta gero, orain negarrez hastea alferlana izaten delako. Honelakoetan zuhurtziak eskatzen duena besterik da, ditugun giza bitartekoak eta eskuratu diren diru-laguntzak kontuan harturik, zentzuzko plangintza egitea, ditugunak ahalik eta egokienik banatzeko, haietatik fruiturik handienak lortzeko, kasu honetan euskararen eta euskal kulturaren onerako.

Edozein enpresak, sortzetik edo denboren arabera, beti ukaiten ditu bere helburu nagusiak, eta ezaldietan maiz egoten da bere funts guztiak xede nagusi horietan, eta soilik horietan, enplegatzeko tentazioan, gainerako beharrak bazterrean utzirik. Hori aukera bat izan daiteke. Horrela, itxuraz behintzat, erakundearen funtsezko egitekoei kasu egiten zaie, gainerakoen kaltean bada ere. Bada, ordea,

beste hautabiderik ere: bilduriko laguntza, gutxi edo asko izan, guztien artean banatzea, kasuren batean hobespenak eginez.

Gurea bezalako Akademia batean, eta gurea bezalako hizkuntzarekin, behartsu familia ugari baten antzera, kanpoko laguntzari esker lortu den guztia ezin daiteke seme-alaba zehatz batzuen eskuetan jar, gainerako haurrideak gosez utzita. Euskaltzaindiak euskararen bizitza du helburu, euskaldun guztiok, eta horien premiak oro ongi gogoan eduki behar ditu Akademiak. Lan egiteko, batzordeak, azpibatzerdeak eta lantaldeak ditu Euskaltzaindiak, eta bakoitzak gure hizkuntzarekin zerikusi zuzena daukan arloa lantzen du: fonologia, morfologia, idazkera, sintaxia, lexiko arrunt zein berezitua, literatura, paremiologia, onomastika... eta maiz, gure balioespen-



AURKEZPENA

eta prestigio-mailak ez datoz bat kalean, ikasgelan eta hedabideetan euskaldunek sentitzen dituzten eguneroko premiekin, Euskaltzaindira egunero heltzen diren jende- eta herri-eskariak lekuko.

Bestetik, bere helburuen plangintzaren aldetik, akademia bati ikusmen luzeagoa eskatu behar zaio, etorkizunerako aurreikuspena ere izan behar du, eta gaur eskatzen denari beti begira egon barik, bihar-etziko premiak ere kontuan hartu behar ditu. Begien bistan dago produktu guztiek ez dutela zoritzeko denbora berbera behar, eta horregatik baserritar zuhurak badaki, etxean fruta jango badute, noizik behinean arbola egokiak landatu edo txertatu beharko dituela, denbora horretan birlanda litezkeen aza edo porruen kaltean, fruta handik hiruzpalau urtera arte jasoko ez badu ere. Edonola ere, familia ugari eta gosekilik duen arabiar zuhurak ez du denbora luzea

enplegatuko palmondoak landatzen, berrogei urte geroago datil-uzta ederra ekarriko diotelako esperantza urrunaz.

Lan egiten ez denean, langilea lehen zeukan trebetasuna gabe gelditzen da, eta emaitzarik ez dakusanean, lanerako interesa ere galtzen du. Lantaldeak sortzeak denbora, praktika eta lana behar ditu, eta ez da zuhurra, hainbeste urtetan pixkanaka eraikitzen joandakoa bat-batean desegitea, are gehiago ustezko lehentasunak maiz, egiazko eskarien araberakoak ez direnean. Interesgarria dateke, hortaz, euskaltzainok geure inguruko errealitate osoaz diogun bezain kezkatu bagaude behintzat, jendeak Euskaltzaindiari sarrienik egiten dizkion galderak nolakoak diren konturatzea.



1

Erakundearen jarduerak

I. BARNE JARDUERA

Euskaraz, hau da, euskal hizkuntzaz arduratzen den erakunde ofiziala da Euskaltzaindia (1919). Hizkuntzaren corpusaz arduratzen da, baina, halaber, baita berorren estatus sozialaz ere. Hortaz, bi sail izan ditu Euskaltzaindiak, Iker eta Jagon sailak, bere jardueraren baitan.

Akademiak ezagutza ofizial osoa du, Espainian Erret Akademia bezala (1976), eta Errepublikan Frantsesean onura publikoko erakunde gisa (1995). Bestalde, bai Gernikako Estatutuak -abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoan-, bai eta Nafarroako Gobernuak ere -abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legean- euskarari dagokionean, Euskaltzaindia dela erakunde aholku-emaile ofiziala onartzen dute.

Euskaltzaindiaren jarduera akademikoa batzorde eta lantaldeen bidez egiten da eta langintza horien emaitzak giza baliabide eta azpiegiturazko zerbitzuekin antolatzen eta gauzatzen dira. Zerbitzu hauek, bestalde, herritarrei nahiz erakundeei erantzuteko, ezinbestekoak dira.

Akademiaren egoitza Bilbon kokatua da. Bilbon egin ohi dira hileroko osoko bilkurak eta zuzendaritzakoak; batzuetan, Donostian eta beste toki batzuetan ere egiten dira bilera horiek. Normalean, hilean bi aldiz biltzen da Zuzendaritza. Erakundearen gobernua, egitasmoen arta izatea eta, orobat, barne jardunbidearen agintea eta erantzukizuna dagozkio Zuzendaritzari. Aurten 23 bilera egin ditu.

Bestalde, batzorde, egitasmo eta lantaldeak ere egoitzan eta ordezkartzetan biltzen dira. Idazkariordea arduratzen da egitasmo eta batzorde akademikoen lanen jarraipenaz eta bateratzeaz. Lan hauen guztien berri ematen die kudeatzaileari, Zuzendaritzari eta, ezarritako epeetan, dagokien herri administrazioei, behar diren txostenak prestatuz.

Herri aginteekin sinatutako hitzarmenen arabera, batzorde teknikoarekiko egitasmo-harremanak ere burutzen ditu idazkariordeak, kudeatzailearekin batera.

I. BARNE JARDUERA

I.1. Zuzendaritza berria

I.2. “Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa” jardunaldia

I.3. Euskaltzaindiaren adierazpena martxoaren 31ko Baionako manifestaldiaz

I.4. “Euskararen Historia Soziala (EHS). Argibide Bibliografikoak” atal berria Euskaltzaindiaren webgunean

I.5. Luis Villasanteren idazlanen digitalizazioa

I.6. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak argitaratu da

I.7. XVII. Jagon Jardunaldiak, “Euskararen oraina eta geroa Ipar Euskal Herrian”

I.8. Heriotzak

I.9. Hilberri txostenak

II. KANPOKO JARDUERA



Euskaltzaindiaren Osoko bilkura Bilboko egoitzan.

ERAKUNDEAREN JARDUERAK

I.1. Zuzendaritza berria

2012ko urriaren 18an, Bilbon, Akademiaren egoitzan egin den bilkura berezian, datozen lau urtetarako Zuzendaritza berria aukeratu du Euskaltzaindiak. Hau da Akademiaren Zuzendaritza berria:

- Euskaltzainburua: Andres Urrutia
- Euskaltzainburuordea: Xarles Videgain
- Idazkaria: Xabier Kintana
- Diruzaina: Sagrario Aleman
- Iker sailburua: Adolfo Arejita
- Jagon sailburua: Jean-Baptiste Coyos

Xarles Videgain,
Xabier Kintana,
Sagrario Aleman,
Andres Urrutia,
Adolfo Arejita
eta Jean-Baptiste Coyos.



ERAKUNDEAREN JARDUERAK



Ezkerretik eskuinera: Paskual Rekalde, Carlos del Olmo, Xabier Aristigieta eta Jexux Mari Agirre, “Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa” jardunaldiaren mahai-inguruan.

1.2. “Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa” jardunaldia

Otsailaren 24an, Euskaltzaindiaren Corpus batzordeak antolatua, “Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa” jardunaldia egin da Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean. Jardunaldiak Akademiak urtarrilean kaleratu duen izen bereko liburua *-Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa-* izan du abiapuntu. 80 pertsona inguruk hartu dute parte.

Andres Iñigo Jagon sailburuak eman dio hasiera jardunaldiari eta Pello Esnal, Xabier Mendiguren Bereziartu, Andres Urrutia eta Igone Etxebarria izan dira hizlari. Hitzaldien ostean, mahai-ingurua egin da. Partaideak hauexek izan dira: Jexux Mari Agirre, Eusko Legebiltzarreko Itzulpen, Zuzenketa eta Interpretazioko teknikaria; Karlos del Olmo, Donostiako Udaleko itzultzaile-interpretea; eta Xabier Aristigieta, Nafarroako Parlamentuko itzultzaile eta interpretea. Moderatzailea Paskual Rekalde izan da, Corpus batzordeko idazkaria.

ERAKUNDEAREN JARDUERAK

1.3. Euskaltzaindiaren adierazpena martxoaren 31ko Baionako manifestaldiaz

Euskaltzaindiak bat egin du Euskal Konfederazioa eta Kontseilua elkarrekin Baionan, 2012ko martxoaren 31n, antolatutako Deiar manifestaldiaren helburuekin. Horrela onartu du Akademiaren Zuzendaritzak, martxoaren 22an, Donostian egindako bileran. Manifestazioaren goiburua “Gure hizkuntzak, eskubide bat, lege bat” izan da.

Hau da Euskaltzaindiaren adierazpena:

“Duela 18 urte Euskaltzaindiak Biarritzen frantses gobernuari eskatu zion euskarak Iparraldeko hiru probintzietan ofizialtasuna ukan zezan, hala nola baitzuen jadanik Hegoaldeko euskal herrialdeetan. Euskaltzaindiak garai hartan egin eskaerak ez zuen segidarik ukan, eta geroztik Frantziak ez du jarrera aldatu: eskualdeetako hizkuntzei beti ukatzen dizkie zinezko ofizialtasuna eta legearen geriza.

Egia da 2008an Konstituzioari aldaketa batzuk egin zizkiolarik (2008-724 konstituzio legea), 75. artikuluari emendio bat egin zitzaioala, eskualde hizkuntzak Frantziako ondarearen parte direla errateko. Pentsa zitekeen hizkuntza horiek Konstituzioan aipatzearekin zerbait ezagutza ere hartzen zutela, eta hizkuntza horien hiztunak, ondorioz, testu berri hartan bermatzen ahalko zirela beren hizkuntzaren defendatzeko. Zorigaitzez, egiazki ez da hala gertatu. Alabaina, duela zenbait denbora, Konstituzio Kontseiluak 75-I artikulua hartaz eman duen erabaki batean (2011-130 erabakia, 2011/05/11koa), guztiz interpretazio hertsia egin du, argiki erranez “ez duela sortzen Konstituzioak segurtatu eskubiderik edo libertaterik”. Gisa horretan, delako artikulua osoki ondorio praktikorik gabekoa zela finkatu du Konstituzio Kontseiluak. Euskararen erabilerari dagozkionetan, euskal herritarrek, lehen bezala, legearen gerizarik gabe segitzen dute, eta haien mintzairaren ofizialtasunaren eskaera sekula bezain bidezkoa eta zuzena da.

Euskararen ofizialtasunaren eta lege baten eskaeraren entzunarazteko, Euskaltzaindiak bat egiten du Euskal Konfederazioa eta Kontseilua elkarrekin Baionan, 2012ko martxoaren 31n, antolatzen duten DEIADAR manifestaldiaren helburuekin”.

Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak onartua, 2012ko martxoaren 22an, Donostian egindako bileran

ERAKUNDEAREN JARDUERAK

I.4. “Euskararen Historia Soziala (EHS). Argibide Bibliografikoak” atal berria Euskaltzaindiaren webgunean

Uztailaren 20an, Euskaltzaindiak atal berri bat zabaldu du Interneten, bere webgunean: “Argibide bibliografikoak: Euskararen Historia Soziala (EHS)” du izena eta helbide honetan kontsulta daiteke: www.euskaltzaindia.net/ehsbib. Atala *Euskararen Historia Soziala (EHS). Argibide bibliografikoak* deritzan liburuaren inguruan eratu da. 2011n argitaratu zen liburu horren helburu nagusia Euskararen Historia Sozialari argibide bibliografikoak eskaintzea zen. Guztion eskura dagoen atal berriaren xede nagusia ere horixe da, Euskararen Historia Sozialari buruzko tresna bibliografikoak guztion eskura jartzea.

Liburuaren paratzaileak Joseba Intxausti zuzendari eta ohorezko euskaltzaina eta Izaskun Etxebeste eta Koro Segurola Euskaltzaindiko teknikariak izan dira, eta oraingo ataleko edukien arduradunak ere horiexek izan dira.

I.5. Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren IV. liburukia kalean

Irailaren 28an, Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren IV. liburukia aurkeztu du Euskaltzaindiak Iruñean. Aurreko hirurak bezala, Euskadiko Kutxaren babesarekin argitaratu du Akademiak. Liburu horretan kontzeptu ugari bildu eta landu dira, eremu biren inguruan: etxe-abereak eta etxea bera. Hala, liburukiaren lehen parte hainbat etxe-abereri eskainia dago (txerriak, hegaztiak, txakurrak, erleak) eta bigarren parte, batez ere, etxearen esparruari dagokio.

Aurkezpena honako hauek egin dute: Andres Urrutia, euskaltzainburuak; Xabier Egibar, Euskadiko Kutxako Negozio Garapenaren Arloko zuzendariak; Maximino Gómez, Euskarabidearen zuzendari kudeatzaileak; eta Adolfo Arejita, EHHA-ren zuzendari akademikoak. Erakundeotako ordezkariak euren poza adierazi dute, baita lanaren garrantzia ere, eta horren ostean Adolfo Arejitak eta Xarles Videgainek eman dituzte egitasmoari buruzko zehaztasunak. Videgain EHHA-ren arduradun teknikoa da, Gotzon Aurrekoetxearekin batera.



Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren IV. liburukia.

Bestalde, abenduaren 11n, Euskararen Herri Hizkeren Atlasa egitasmoa aurkeztu da Université de Pau et des Pays de l'Adour-eko Baionako campusean. Ekitaldian, Andres Urrutia euskaltzainburuak, Adolfo Arejita euskaltzain eta egitasmoaren zuzendari akademikoak, Xarles Videgain eta Gotzon Aurrekoetxea arduradun teknikoek parte hartu dute.



Ezkerretik eskuinera: Xarles Videgain, Adolfo Arejita, Andres Urrutia, Maximino Gómez eta Xabier Egibar, Iruñean, Atlasaren IV. liburu kiaren aurkezpenean.



Iñaki Beristain, Miriam Villasante, Josune Ariztondo, Joan Mari Torrealdai, Andres Urrutia, Jon Etxabe eta Xabier Kintana

1.6. Luis Villasanteren idazlanen digitalizazioa

Luis Villasanteren artxiboa eta hark idatzitako lanak sistematizatu eta digitalizatu ditu Euskaltzaindiak, Bizkaiko Foru Aldundiak berariaz emaniko diru-laguntza bereziari esker. Villasante euskaltzainburua izan zen 1970etik 1988ra. Bere lehen argitalpena 1944koa da, eta azkena 2000koa. Guztira, argitaratutako 929 idazlan katalogatu eta bildu dira, eta guztiak kontsulta daitezke Akademiaren webgunean. Gainera, bere artxibotik, eskuizkribuak, gutunak eta argazkiak ere digitalizatu dira.

Villasanteren idazlanak -aurretik argitaratuak eta gaurtik aurrera Interneten-lau multzo nagusitan daude banatuta: liburu osoak (41), liburu zatiak (106), artikulua (769, gehienak euskaraz idatziak) eta edizio bereziak. Edizio berezi horiek ere liburu osoak dira, baina Villasanteren egiletza berezia da, testuak ez baitira berak sortutakoak, bildu, editatu edo prestatutakoak baizik (13 guztira).

Gaiei dagokienez, erlijio gaiak jorratu zituen gehienbat (381). Euskarari buruzkoak 298 lan dira (Euskaltzaindiaz, hizkuntzalaritzaz, normalizazioaz), eta literaturaz 180 lan sailkatu dira. Bestelako lanetan gai ugari jorratu zituen.

Idazlan guztiak PDF formatuan digitalizatuta eskaintzen dira.

Egitasmoa Euskaltzaindiak kudeatu du, eta Joan Mari Torrealdai zuzentzen duen *Jakin* aldizkariaren taldeak garatu du. Aurkezpena irailaren 19an egin da, Euskaltzaindiaren egoitzan, eta parte hartu dute Joan Mari Torrealdai, Josune Ariztondo Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura diputatuak, Iñaki Beristain Arantzazuko Frantziskotarren Probintziako ordezkariak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak. Miriam Villasante Luis Villasanteren iloba ere bertan izan da.



ERAKUNDEAREN JARDUERAK

I.7. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak argitaratu da

Urriaren 3an, *Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak* aurkeztu da Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan. Lan hori euskara-euskara hiztegia da eta Euskaltzaindiak, Elkar argitaletxeak eta Elhuyar Fundazioak batera argitaratu dute, elkarlanean.

Lanaren oinarria Euskaltzaindiak onartua duen *Hiztegi Batua* da, lehen itzulian argitaratutako hitzekin. Lan berriak, ordea, askoz informazio gehiago eskaintzen du: *Hiztegi Batuko* lehen 20.000 hitzak dauzka, beren definizio, kategoria gramatikal, espezialitate-, erregistro- eta euskalki-markekin, aditz-erregimenekin, eta benetako erabileratik jasotako adibideekin, hots, irakurleari euskal hitzak egoki erabiltzen lagunduko dioten informazioa dakar argitalpenak. Aurkezpenean honako hauek izan dira: Andres Urrutia, euskaltzainburua; Olatz Osa, Elkar argitaletxeko zuzendaria; Itziar Nogeras, Elhuyar Fundazioko zuzendari nagusia; Andoni Sagarna, Euskaltzaindiko lker sailburua; eta Ibon Sarasola, *Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak* egitasmoaren zuzendaria.

I.8. XVII. Jagon Jardunaldiak, “Euskararen oraina eta geroa Ipar Euskal Herrian”

Azaroaren 16an, Akademiaren Sustapen batzordeak antolatutak, XVII. Jagon Jardunaldiak egin ditu Euskaltzaindiak, Baionan, Université de Pau et des Pays de l'Adour-eko Baionako campusean, *Salle des Thèses*-en, “Euskararen oraina eta geroa Ipar Euskal Herrian” gaiaren inguruan.

Jardunaldiotan hainbat gai tratatu dira: euskararen bilakaera soziolinguistikoa Ipar Euskal Herrian; euskararen balioespen kulturala; euskarak aurrera egin ahal izateko, garabidean jarri beharreko hizkuntza-politika; irakaskuntza elebidunaren erronkak; edota eremu desberdinetan abian jarritako esperientzien aurkezpenean, besteak beste. 90 pertsona inguruk hartu dute parte.

Jardunaldien barruan, *Euskaltzaindia eta Ipar Euskal Herria* liburuxka aurkeztu du Euskaltzaindiak. Akademiak Ipar Euskal Herrian egin eta egiten dituen ekitaldien berri ematen duen liburuxka da. Hainbat atal ditu: harreman instituzionalak, Euskaltzaindiaren biltzarrak eta ekitaldiak Iparaldean, edota argitalpenak. Ipar Euskal Herriko euskaltzain oso, ohorezko eta urgazleen zerrenda ere ageri da.



Itziar Nogeras, Andoni Sagarna, Andres Urrutia, Ibon Sarasola eta Olatz Osa, Euskaltzaindiaren Hiztegiaren aurkezpenean.

ERAKUNDEAREN JARDUERAK



Omenduen senitartekoak,
Euskaltzaindikiko kideekin

I.9. Heriotzak

2012an ondoko euskaltzain hauek hil dira:
Jose Luis Alvarez Enparantza “Txillardegi”
euskaltzain urgazlea (urtarrilaren 14an),
Karmele Esnal ohorezko euskaltzaina
(maiatzaren 30ean) eta Josu Arenaza
euskaltzain urgazlea (irailaren 29an).

I.10. Hilberri txostenak

Urtarrilaren 27an, Euskaltzaindiak ageriko
bilkura egin du Bilbon, Akademiaren egoitzan,
2011. urtean hil diren euskaltzainak
omentzeko.

Ondoko hilberri txostenak irakurri dira:

- Vahan Sarkisian (1954-2011) ohorezko euskaltzaina. Xabier Kintana euskaltzain osoak irakurri du.

- Fernando Mendizabal (1934-2011) euskaltzain urgazlea. Joseba Intxausti ohorezko euskaltzainak irakurri du.

- Xabier Gereño (1924-2011) ohorezko euskaltzaina. Jose Luis Lizundia eta Xabier Kintana euskaltzain osoek txosten bana irakurri dute.

- Jose Antonio Arana Martija (1931-2011) euskaltzain emeritua. Jose Luis Lizundia eta Joan Mari Torrealdai euskaltzainek eta Begoña Arana, Jose Antonio Aranaren arreba txosten bana irakurri dute.



ERAKUNDEAREN JARDUERAK

II. KANPOKO JARDUERAK

Betidanik lan egin du Euskaltzaindiak beste erakundeekin elkarlanean. Hauek dira 2012an era horretan antolatutako ekitaldi batzuk:

“Euskarari gorazarre / El euskera, una lengua con futuro” jardunaldiak

Martxoaren 13tik 15era bitartean, “Euskarari gorazarre / El euskera, una lengua con futuro” jardunaldiak egin dira Madrilan, Etxepare Euskal Institutuak, Euskaltzaindiak eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak antolatuak. Jardunaldi horien helburua hau izan da: Madrilan euskarari gorazarre egitea, azken urteotan euskalgintzan eman diren aurrerapausoak nabarmenduz, etorkizun handiko hizkuntza dela erakutsiz eta hizkuntzalaritzan eta literaturan goi-mailako emaitzak ematen ari dela adieraziz.

Hitzaldiak ez ezik, bestelako ekitaldiak ere izan dira jardunaldietan. Hala, Henrike Knörr eta Pedro de Irizar omendu dituzte hilaren 14an eta 15ean, hurrenez hurren; eta 16an, Bernardo Atxagak eta Jabier Muguruzak *Katuak eta paradisua* emanaldi artistikoa eskaini dute, Círculo de Bellas Artes-en.

Ekitaldi nagusia, baina, martxoaren 14an izan da, egun horretan egin baita euskara omentzeko ekitaldi instituzionala, Espainiako Errege Akademiaren.

Ekitaldi instituzional horretan, jardunaldiok antolatu dituzten erakundeekin batera, Espainiako Errege Akademiako, Galiziako Errege Akademiako eta Institut d'Estudis Catalaneko ordezkariak izan dira. Jose Ignacio Wert Espainiako Gobernuko Hezkuntza, Kultura eta Kiroleko ministroa buru izan duen ekitaldi honetan, parte hartu dute: José Manuel Blecu Espainiako Errege Akademiako zuzendariak; Arantza Quiroga Eusko Legebiltzarreko presidentek; Aizpea Goenaga Etxepare Institutuko zuzendariak; Andres Urrutia euskaltzainburuak; José María Urkia Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko zuzendariak; Xosé Luis Méndez Ferrín Galiziako Errege Akademiaren presidentek; eta Joan A. Argenter Institut d'Estudis Catalaneko UNESCOren Hizkuntza Katedraren zuzendariak.

Ekitaldian Euskaltzaindiko, Espainiako Errege Akademiako eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko beste hainbat kide eta euskal ordezkari politikoak ere izan dira, baita euskal politikari ugari ere. Henrike Knörr zena ere omendu dute, bere familia bertan

zela. Jose Luis Lizundia Euskaltzaindiko diruzainak eta José Antonio Pascual Espainiako Errege Akademiako zuzendariordeak ekarri dute gogora Henrike Knörr zena.

Bestalde, jardunaldien barruan, martxoaren 15ean, Iberiar Hizkuntzen aretoan, Euskaltzaindiaren lan bi aurkeztu dira: batetik, Andoni Sagarna Iker sailburuak Euskaltzaindiak hiztegegintzaren eremuan egin duen ibilbidea azaldu du, besteak beste, azken urteetan halako lanetan ibili diren pertsonen izenak aipatu eta egindako lana eskertuz; bestetik, Adolfo Arejita egitasmoaren zuzendariak *Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren* (EHHA) nondik norakoa azaldu du. Xabier Kintana Euskaltzaindiko idazkaria izan da aurkezlea.



Espainiako Errege Akademian egin den ekitaldiaren amaieran, Henrike Knörr gogoan izan dute. Argazkian, Jose Luis Lizundia, Knörr zenaren omenezko txostena irakurtzen.

ERAKUNDEAREN JARDUERAK

*Euskal Pizkundeari buruzko erakusketa.
Azkue Bibliotekak materiala utzi du*



Mauleko Libürüaren Egüna, Sarako Idazleen Biltzarra, liburu azokak

Martxoaren 17an, I. Libürüaren Egüna egin da Maulen. Hiri horretako Herriko Etxeak antolaturik, egun osoan zehar egon da zabalik. Euskaltzaindiak ere saltokia jarri du, eta Zuberoarekin lotura duten 20 argitalpen erakutsi. Inaugurazio ekitaldi ofiziala hilaren 16an izan zen. Mauleko I. Libürüaren Egunaren sarrera hitzaldia Jean-Louis Davant idazle eta euskaltzainak egin du, “Eüskal literatüran paseiü bat libürü zonbaitekin” izeneko mintzaldiarekin.

Apirilean, Sarako Idazleen Biltzarrean parte hartu du Euskaltzaindiak, eta lau liburu aurkeztu: *Xiberoko Antzertia edo Pastoral*a, Junes Casenave-Harigilerena; Gratien Adema "Zaldubi"ren *Bertze prediku batzuk*, Henri Duhauk prestatua; *Gazteak, aisialdia eta euskara Ipar Euskal Herrian*, Erramun Baxok eta Jean Baptiste Coyosena; eta Xarles Videgainek prestatutako *Eugène Goyheneche: Onomastique du Nord du Pays Basque*. Bestalde, Durangoko Liburu Azokan ere izan da, baita Bartzelonako Liber Azokan ere.

Maiatzaren 31tik ekainaren 10era, Bilboko Liburu Azokak iraun bitartean, *Euskal Pizkundeari* buruzko erakusketa bat ikusgai egon da Bilbon. Erakusketa Liburu Azokaren ekimenez antolatu da eta Euskaltzaindiak kolaboratu du, Akademiaren Azkue Bibliotekak maileguan utzi duen materialarekin. Urrian, hilaren 3tik 5era, Institut d'Estudis Catalans eta Consello da Cultura Galega erakundeekin batera, Bartzelonako Liber Azokan izan da Euskaltzaindia. Eta abenduan, urtero bezala, 6tik 9ra bitartean, Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan ere agertu da Akademia.



ERAKUNDEAREN JARDUERAK

“Euskarazko funtsen bilketa, tratamendua eta hedapena” jardunaldietan

Ekainaren 7an, Nafarroako Gobernuaren Euskarabideak antolaturik, “Euskarazko funtsen bilketa, tratamendua eta hedapena” izeneko jardunaldia egin da Burlatan. Euskaltzaindiak egitasmo bi aurkeztu ditu: Euskararen Herri Hizkeren Atlas (EHHA) eta Ahozko Tradizioko Hizkeren Corputa (ATHC). Akademiaren ordezkariak hauek izan dira: Adolfo Arejita bi egitasmoetako zuzendari akademikoa, eta Amaia Jauregizar eta Aritz Abaroa, EHHA eta ATHC egitasmoetako teknikariak, hurrenez hurren.

Ekainean, Soziolinguistika Klusterrak Euskaltzaindia ohorezko bazkide izendatu du. Horrela erabaki du ekainaren 14an, VIII. Batzar Orokorrean. Batzar horretan erakunde hauek parte hartu dute: Emun Kooperatiba, Eusko Ikaskuntza, Topagunea, Artz Euskara Zerbitzua, Elhuyar Aholkularitza, AEK, Gipuzkoako Urtxintxa, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea (HUHEZI), Gipuzkoa Donostia Kutxa, Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarte eta Aztiker.

Ekainaren 22an, Arabako Foru Aldundiak antolatzen duen “Gerardo Lopez de Guereñu” lehiaketaren bigarren edizioaren sari-emate ekitaldia egin da Gasteizen. Lehiaketarekin batera hitzaldi sorta antolatu da Araban zehar. Orotara, 21 hitzaldi egin dira, eta hauek aritu dira hizlari: Elena Martínez de Madina eta Felix Mugurutz Euskaltzaindiko Onomastika batzordeko kideak, Koldo Zuazo hizkuntzalari eta euskaltzain urgazlea, eta Andoni Llosa Trebiñuko euskara teknikaria. Hitzaldi horietan, gainera, Euskaltzaindiak argitara eman dituen *Gasteizko Toponimia* sortaren hiru liburuak (Gasteizko Hiria, Malizaeza eta Ubarrundia) erakutsi eta zabaldu dira.

Uztailaren 4an, *Leioako leku-izenak* liburua aurkeztu da Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan. Liburuan, azken hiru urteetan egin den *Leioako toponimia* ikerketa-lanaren emaitzak batu eta herritarren esku ipini dituzte Leioako Udalak eta Akademiak. Lanaren egileak Mikel Gorrotxategi, Iratxe Lasa eta Goizalde Ugarte dira. Azaroaren 15ean Leioan aurkeztu dute.

Urteroko ohiturari jarraituz, *Nafarroa Oinez* festarekin bat egin du Euskaltzaindiak, eta urrian, Zizur Txikian, zenbait ekitaldi egin ditu Akademiak.

2012ko Ondarearen Europako jardunaldietan

Urrian zehar, “Erdi Aroaren amaiera” izenburupean, 2012ko Ondarearen Europako jardunaldiak egin dira. Bizkaiko Foru Aldundiak antolatzen duen ekimen honetan, Euskaltzaindiak ere hartu du parte. Akademiak urriaren sei egunetan hartu ditu Jardunaldiak: hilaren 2an, 3an, 9an, 10ean, 23an eta 24an. Batetik, bi saiotan, “Euskal letren egunsentia Erdi Aroaren amaieran” izenburupean, garai horretako kanta epikoen berri eman da. Bestetik, hamar hitzalditan, euskararen jatorriaz eta bilakaeraz mintzatu da, euskarazko izenak berreskuratzeko eta normalizatzeko egindako bidea azaldu, eta egoitza bisitatzeko aukera eman da. Hitzaldiak eman dituztenak, hauexek: Xabier Kintana, Jabier Kaltzakorta, Pruden Gartzia, Josune Olabarria, Patxi Galé, Mikel Gorrotxategi, Aritz Abaroa, Amaia Jauregizar eta Gorka Intxaurbe. Bestalde, Azkue Bibliotekak “Azkue Bibliotekako artxiboan dauden XV.-XVI. mendeko dokumentu eta garaiari lotutako liburuak” izeneko erakusketa prestatu du, eta urriaren 2tik 17ra egon da zabalik, Euskaltzaindiaren aretoan.



Amaia Jauregizar, Adolfo Arejita eta Aritz Abaroa, Burlatako jardunaldietan.



Azaroaren 7an, Oiartzungo Udaletxean, Manuel Lekuona zena omendu dute. Omenaldian, bere senideak izan ziren. Haiekin batera, argazkian ageri dira Aiora Perez de San Roman alkatea, Andres Urrutia euskaltzainburua, Iñaki Murua Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko presidentea, eta Jose Ramon Zubimendi Euskaltzaindiko Herri literatura batzordeko idazkaria.

XVII. Jagon Jardunaldiak eta Manuel Lekuona eta Eusebio Erkiagaren omenez

Azaroaren 7an, Manuel Lekuona euskaltzaina, antropologoa eta hizkuntzalaria hil zela 25 urte bete zirela-eta, Oiartzungo Udalak omenaldia eskaini dio. Bertan parte hartu dute udal ordezkariak, Manuel Lekuona zenaren senideak, Euskaltzaindiak eta Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko ordezkariak. Egun horretan bertan, Euskaltzaindiaren Zuzendaritza batzartu da Oiartzunen.

Azaroaren 16an, Akademiaren Sustapen batzordeak antolatuak, XVII. Jagon Jardunaldiak egin ditu Euskaltzaindiak, Baionan, Université de Pau et des Pays de l'Adour-eko Baionako campuseko *Salle des Thèses*-en, "Euskararen oraina eta geroa Ipar Euskal Herrian" gaiaren inguruan. Jardunaldiotan hainbat gai tratatu dira: euskararen bilakaera soziolinguistikoa Ipar Euskal Herrian; euskararen balorazio kulturala; euskarak aurrera egin ahal izateko, garabidean jarri beharreko hizkuntza-politika; irakaskuntza elebidunaren erronkak; edota eremu desberdinetan abian jarritako

esperientzien aurkezpena, besteak beste.

Azaroaren 30ean egin da Bilbon, Deustuko Unibertsitatean, Euskaltzaindiko Literatura Ikerketa batzordeak eta Deustuko Unibertsitateak lankidetzan antolaturiko Eusebio Erkiagaren omenezko jardunaldia. Ekitaldiak Bilboko Udalaren laguntza izan du.

Bestalde, Urepelen egin den Xalbador Egunean ere hartu du parte.



Baionan egin diren Jagon Jardunaldietako une bat.



2

Akademia jarduera

Euskaltzaindiaren akademia-jarduera batzorde, egitasmo eta zerbitzuen bidez garatzen da. Hileroko osoko bilkurak arau maila ematen die batzordeetatik datozen hizkuntza-proposamenei.

Euskaltzaindiak bi sail nagusi ditu: Iker Saila eta Jagon Saila. Lau urterik behin berriztatzen dira sailburuak, batzordeak eta batzordekideak. Batzordekideez gain, aholkulariez ere baliatzen dira batzordeak. Lantaldeak ere sortzen dira, kasuan kasuko premien eta baliabideen arabera. Euskaltzain osoak, urgazleak eta zernahi esparrutako adituak biltzen dira batzorde horietan: unibertsitateetako eta institutuetao irakasleak, hezkuntza munduko irakasleen euskalduntze-alfabetatze lanetan diharduten prestatzaileak, idazleak, komunikabideetako teknikariak, itzultzaileak, hiztegiak, administrazioko teknikariak eta beste.

I. HIZTEGIGINTZA

II. GRAMATIKA

III. DIALEKTOLOGIA

IV. ONOMASTIKA

V. LITERATURA

VI. JAGON SAILA

VII. EGITURAZKO BATZORDEAK

VIII. R.M. AZKUE SARIAK



I. HIZTEGIGINTZA

Hizkuntza Akademia batentzako hiztezigintza oinarri-oinarrizko eginkizuna da. Amaituta dagoen *Orotariko Euskal Hiztegia*-z gain, Euskaltzaindiak beste bi proiektu garrantzizko ditu eskuartean: *Euskaltzaindiaren Hiztegia* eta *Hiztegi Batua*.

I.1. Euskaltzaindiaren Hiztegia (adierak eta adibideak)

Euskaltzaindiaren Hiztegia (Hiztegi Batua - I. itzulia - Adierak eta adibideak) izeneko hiztegiaren oinarria Euskaltzaindiak onartua duen *Hiztegi Batua* da, lehen itzulian argitaratutako hitzak.

I.1.1. Euskaltzaindiaren Hiztegia (adierak eta adibideak) egitasmoa

Urriaren 3an, *Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak* aurkeztu da Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan. Lan hori euskara-euskara hiztegia da eta Euskaltzaindiak, Elkar argitaletxeak eta Elhuyar Fundazioak batera argitaratu dute, elkarlanean. Lanaren oinarria Euskaltzaindiak onartua duen *Hiztegi Batua* da, lehen itzulian argitaratutako hitzak. Lan berriak, ordea, askoz informazio gehiago eskaintzen du: *Hiztegi Batuko* lehen 20.000 hitzak dauzka, beren definizio, kategoria gramatikal, espezialitate-, erregistro- eta euskalki-markekin, aditz-erregimenekin, eta benetako erabileratik jasotako adibideekin, hots, irakurleari euskal hitzak egoki erabiltzen lagunduko dioten informazio guztiekin.

Aurkezpenean egon dira Andres Urrutia, euskaltzainburua; Olatz Osa, Elkar argitaletxeko zuzendaria; Itziar Nogeras, Elhuyar Fundazioko zuzendari nagusia; Andoni Sagarna, Euskaltzaindiko Iker sailburua; eta Ibon Sarasola, *Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak* egitasmoaren zuzendaria.

I.1.2. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta Adibideak batzorde ahaldundua

“Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak batzorde ahaldundua” 2009an sortu zen. Euskaltzaindiaren Osoko Bilkuraren ahalez eta eskuz jardun du., *Euskaltzaindiaren Hiztegia: adierak eta adibideak* lanaren jarraipena egiten. 2012an, *Hiztegi Batua*ren bigarren itzuliko 1.000 artikulua aztertu ditu hilero, hau da, 7.000 artikulua urte osoan.

Hiztegia amaitzean, batzorde ahaldunduak amaitutzat eman du bere lana eta desegin da.



AKADEMIA JARDUERA

1.2. Hiztegi Batua

1.2.1. Hiztegi Batua (2. itzulia) batzorde ahaldundua

Euskaltzaindiak Hiztegi Batua (2. itzulia) batzorde ahaldundua sortu zuen 2010ean. Batzorde honen xedea hauxe da: Euskaltzaindiaren Osoko Bilkuraren ahalez eta eskuz, Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batua* eztabaidatzeko prozedura arintzea, egitasmoaren epeak laburtuz eta egitasmo horri bukatze-data eskuragarriagoa emanez.

Aurten *Hiztegi Batua*ren hiru bertsio eguneratuak -apirilean, uztailean eta abenduan- osatu eta aurkeztu dira. Oro har, 1.500 hitz inguru aztertu ditu; bestalde, Euskaltzaindiaren Osoko Bilkurak aurreko bi itzulietan gerorako utzi, eta *Lexikoaren Behatokia*n aintzat hartzeko adina maiztasuna erakutsi duten beste 81 hitz aztertu ditu.

1.2.2. Hiztegi Batuko lantaldea

Hiztegi Batua hiztegi arauemailea dugu. *Hiztegi Batua*-ren lehen itzulian forma erabilienak edota hedatuak jaso ziren. Bigarrenean erabilera urriagokoak jasotzen ari dira. Eta hau amaitzen denean, guztira, 55.000 hitzetik gora izango du *Hiztegi Batua*k. Hainbat arlotako hitz-multzoak aztertu eta prestatu utzi ditu: elementu kimikoenak, zodiakoko zeinuenak, txanponenak, magnitudeen unitateenak, animalia-arrazenak, izen propioetatik eratorritako hitzak.

Bestalde, Hiztegi Batuko lantaldeak urteak daramatza corpusetan oinarrituz Hiztegi Batua osatzen duten formak lantzen eta proposatzen: *Orotariko Euskal Hiztegiaren* corpora eta *XX. Mendeko Euskararen Corpora*. Oinarritzko hiztegia eskuratu da iturri hauekin, baina aurrera begira egungo euskararen eskaerei erantzungo dien corpus handiago baten beharra dago. Jokabide horien behatokia da, beraz, lantaldeak bultzatu duen corpus berria: *Lexikoaren Behatokia*. Hori UZEI, Elhuyar eta EHUko Ixa taldearekin garatuko du Akademiak.

2011. urtean *Lexikoaren Behatokia*n zeuden 17 milioi testu hitzetatik erauzi diren hitz-multzoak aztertu dira, 7 milioi, alegia. Euskaltzaindiaren Osoko Bilkurak aurreko bi itzulietan baztertu zituen 1.500 hitz onartu ditu, *Lexikoaren Behatokia*n maiztasun handiz agertzen zirelako. *Lexikoaren Behatokia*n 25 agerralditik gora dituzten 350 forma berri ere aztertu ditu.

Aurreko urteetako harremanei eutsiz, Euskaltzaindiak eta UZEIk lankidetzan jardun dute 2012an ere.





Hiztegiak eta Corpusak

Hiztegi Batua

Hiztegi Batu Oinarriduna

XX. mendeko Euskararen Corpus Estatistikoa

Orotariko Euskal Hiztegia

Literatura Terminoen Hiztegia

Lexikoaren Behatokiaren Corpusa

Hasiera → Hiztegi Batua

Hiztegi batua

Bilatu:

Bilatu nahi duzun forma:

Bilatu

Ikus halaber:

- Argibideak
- Laburdura zeinuak

Hiztegi Batua jaitsi (PDF, 2,1 MB)

A B C D E F G H I J K L M N Ñ O P Q R S T U V W X Y Z

36843 emaitza

1 / 3685

Hurrengoak →

a 1 iz. 'euskal alfabetoaren lehen letra' 2 iz. "'a' letraren izena'

- a bildu** (@ ikurraren izena)

a 2 interj.: *a!*

aalundar (herritarra)

aba* e. **alta** (elizgizonaren titulua)

ababor iz. [batez ere leku-denborazko kasuetan erabilia]: *ababorrean ur-zulo bat dago.*



AKADEMIA JARDUERA

I.3. Zientzia eta Teknologia Hiztegia biltzeko egitasmoa

Egitasmo hau 2008an hasi zen lanean, eta bere helburua hau da: zientzia eta teknologia arloetan erabiltzen diren hitz oinarritzkoak bildu eta aztertu, gero horiek Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuan txertatu ahal izateko.

Matematikazko terminoen zerrendari azken ukituak egin zaizkio, eta zerrenda osoa Euskaltzaindiari entregatu zaio. Fisika alorrean, aditu-taldea antolatu ostean, oinarritzko terminoen zerrenda osatu, eta Euskaltzaindiari eman zaio. Astronomia eta astrofisika arloko terminoen zerrenda bildu da, eta adituek bera lantzen dihardute.

I.4. Euskal Hiztegi Etimologikoa egitasmoa

Euskal hitzen orain arteko ikerketa historiko eta etimologikoetatik abiatuta, eta *Orotariko Euskal Hiztegi*an bildutako informazioa baliatuta, euskal hitzen jatorria eta historia modu sistematikoan aztertzea da asmoa.

Euskal Hiztegi Etimologikoaren (EHE) oinarritzko prototipoa izateko lanean aritu da. Helburua hauxe izan da: 550 bat hitz hautatuko bilduma eta eskuliburu bat prest izatea. Hala, bada, 80 sarreraren (240 bat hitzen) aurre-erredakzioa egin da eta beste 150 (450 bat hitzen) erredakzio aurreratuko prozesuan sartu dira. 175 sarreraren (525 bat hitzen) azken idatzaldia egin da. EHEren prototipoaren azken idatzaldia prestatu da; 175 sarrera eta 550 bat hitzen azterketa etimologikoa biltzen duen prototipoa da.

I.5. Lexikoaren Behatokia egitasmoa

Hiztegi Batuko lantaldeak egungo euskararen eskaerei erantzungo dien corpus handiago baten beharra ikusi zuen, gaurko testuak etengabe bilduko dituen. Jokabide horien behatokia da, beraz, lantaldeak bultzatu duen corpus berria: *Lexikoaren Behatokia*. UZEI, Elhuyar eta EHUko Ixa taldearekin garatuko du Akademiak. 9.385.000 testu-hitz katalogatu eta corpus egituratuan txertatu dira. Zeregin guztiak burutu dira, eta kontsultarako aplikazioa Euskaltzaindiaren webgunean jarri da. Corpusak 26.565.924 testu hitz dauzka.

Hainbat komunikabiderekin -*Berria*, *Argia*, *EiTB*, *Deia*, *Noticias de Gipuzkoa*, *Diario Vasco*, *Jakin*- hitzarmenak sinatu ditu Euskaltzaindiak, ekoitzi dituzten euskarazko testuak Euskaltzaindiaren eskuetan jar ditzaten.



II. GRAMATIKA

Batzordeak *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak* saila burutu du, eta horrekin batera lan horren eguneratze- eta osatze-lana hasi da egiten, hau da, *Euskararen Gramatika* (EG) izango dena. Proiektu horren plangintzaren inguruko txosten bat aurkeztu ondoren, Gramatika berriaren edukiak eta lan-prozedura finkatzen hasi da batzordea. Lana arintzeko, Gramatika batzordeko talde eragilea osatu da.

Ohi bezala, batzordea JAGONET zerbitzuaren bidez jaso diren galderei erantzuten aritu da.

III. DIALEKTOLOGIA

III.1. Euskararen Herri Hizkeren Atlasa egitasmoa

Galdeketa puntuen sarea, galde-sorta eta lan metodologia finkatu ondoren, 1986an probak egin eta 1987an hasi zen Euskaltzaindia inkestak egiten. 145 herri hautatu ziren galdeketerako:

- Euskal Autonomia Erkidegoan: Araban herri 1, Bizkaian 36 eta Gipuzkoan ere 36.
- Nafarroako Foru Erkidegoan: 27 herri.
- Iparraldean: Lapurdin 15, Nafarroa Beherean 18 eta Zuberoan 12.

Inkesta-leku bakoitzean 2.857 itaun egin ziren. Euskaltzaindiak bildurik dituen grabazioak 4.000 orduetik gora dira. Egitasmoaren helburua galdera horiekin atlas bat osatzea da, hots, inkestaren ondorioei dagozkien mapak eratzea eta jendearen eskuetan jartzea.

2012an laugarren liburukia kaleratu da, eta bosgarrenaren behin-behineko bertsioa amaitu da. Zazpigarren eta zortzigarren liburukien 204 galderen prestaketa egin da,

eta bion mapa-erantzutegiak aztertu eta zuzendu dira. Gainera, zortzigarren liburukiaren 41. gaiaren (*pentzea*) 16 galdera eta 42. gaiaren (*belar lana*) 15 prest utzi dira.

III.2. Ahozko Tradizioko Hizkeren Corpusa egitasmoa

Egitasmo honen helburua ahoz transmitituriko edukiak gorde, sailkatu, era selektiboz transkribatu eta ondoko ikerkuntzetarako oinarritzat eskaintzea da. Bilduko diren edukien artean hauek daude: lanbideak, ohiturak, ipuinak, pasadizoak, oroitzapen zaharrak, sineskerak, esaerak, jokoak, kantuak... Horretarako ahozko transmisioaren ondarea modu sistematikoz eta metodologikoz batzeko plan bat abian jarri da.

10 grabazio egin dira, beste 20 landu, 325 pasarte hautatu eta etiketatu dira, eta 165 transkripzio egokitu dira. Ahozko Ondare Bildumarako 165 transkribapen egokitu dira. Gainera, "Zubererazko transkribatzeko irizpideak" dokumentua landu da. 115 transkripzio zuzendu dira.



Xarles Videgain mintzatzen, Baionan egin den EHHaren aurkezpenean, abenduaren 11n.



IV. ONOMASTIKA

IV.1. Onomastika batzordea

Onomastika batzordeak ponte-izenak, deiturak eta leku-izenak aztertzen ditu; alegia, izendegi ororekiko finkatze, gainbegiratze, irizpen eta ziurtagiri-emate edota aholkularitza lanetan dihardu. Hainbat herritako toponimia-ikerketak eta mapak gainbegiratzen aritu da, eta EUDELen bitartez datozen kontsultak erantzun dira, bai eta erakundeek, elkarteek eta banakakoek egiten dituztenak ere.

Batzordeak Euskal Herriko herrialdeetako administrazio publikoetatik (EAEko Gobernutik eta diputazioetatik, Nafarroako Gobernutik, Ipar Euskal Herriko udal eta herrietatik) iristen diren eskariak jaso eta erantzun ditu. Ponte izen bat eta 30 bat deitura onartu dira.

Euskal Herriko Ibaiak, arau izaera duena -166. araua- amaitu da. Santu izenen bilduma lana prestatzen jarraitzen du batzordeak, bai eta Euskal Herriko herrien izendegia eta Ponte Izendegi berria ere. Bestalde, Euskal Deituren Izendegi berria lantzen hasi da. Aiarako, Arakaldoko,

Elgoibarko eta Zaratamoko mapa toponimikoen aurkezpenak egin dira. Horrez gainera, Bizkaia Irratiarekin lankidetzan, hainbat saio grabatu dira Onomastikaren inguruan.

IV.2. Exonomastika batzordea

Batzorde honek exonimo edo kanpo-izenak aztertzen ditu eta araugintza, irizpen eta aholkularitza lanetan dihardu.

Aurten Ekialde Hurbileko eta Ipar Afrikako toponimia araua (164. araua) eta 165. araua (Arabiar alfabetoan idatzitako izenak euskarara aldatzeko transkripzio-sistema) prestatu dira. Sahara Hegoaldeko Afrikako, Asia Ertaineko eta Urruneko, Ameriketako eta Ozeaniako toponimia lantzen aritu da eta hainbat araugai prestatu ditu. Astronomia izenak lantzen ere jardun du batzordeak.



Eako toponimiari buruzko erakusketa egin dute azaroan.



IV.3. Euskal Corpus Onomastikoa (ECO) egitasmoa

Egitasmo honen helburua euskarazko izen propio edo berezien ahalik eta corpus osoena biltzea da. Horretarako datu-base bat diseinatu eta datuak jasotzen jarraitu da.

Hainbat datu onomastiko erregistratu dira, eta datu basean jaso. Hala, Arnaud Oihenarten *Notitia utriusque vasconiae* eta Pello Apezetxearen eta Patxi Salaberriren *Etxalarko etxeen izenak* lanen erauzketa onomastikoa egin da. Alfontso Irigoienek *De re philologica linguae vasconicae* bildumako I. liburukiaren informazio onomastikoa jaso da, eta berdin egin da ondoko lanekin ere: *Oinatiko toponimia edo leku-izenak* (Jesus Mari Ugarte eta Iñaki Zumalde), *Relación de nombres de caseríos del término municipal de Munguía* (Andoni Cayero), *Travesía de los mugaris, la unión de los 276 hitos de la frontera vasca, del Bidasoa a Belagua* (Iñaki Vigor eta Carlos Sanz), *Bakaikuko leku-izenak* (Jose Luis Erdozia), *Euskal lurra, Lur eta gizon. Euskal Herria liburuaren atal bat* (Jose Luis Lizundia), *Nombres genéricos de río en la toponimia vasca* (Bernardo Garro).

Frantziako Institut Géographique National-aren kartografian ageri den Lapurdiko, Nafarroa Behereko, Zuberoako eta Izaba eta Bearno arteko mugan dagoen toponimia jaso da. Euskal Onomastikaren Datutegian ateratzen diren leku guztien kokaleku geografikoa zehaztu da. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE), Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edota EAeko hiru foru aldundietako aldizkari ofizialetan ageri diren udalerrien zerrendak eta herri izenei buruzko informazioak jaso dira.


Egitasmo hau Nafarroako Gobernuarekin sinaturiko urteko hitzarmenean espresuki jasota dago, eta horretarako ematen duen diru-laguntzari esker egin ahal izan da.



Elgoibarko mapa toponimikoaren aurkezpena.

IV.4. Gasteizko Toponimia egitasmoa

Euskaltzaindiak Gasteizko Udalarekin sinatutako hitzarmenari esker jarraitu da udal barrutiaren toponimia biltzen eta finkatzen. Orain arte, bildumaren hiru liburuki argitaratu dira: *Gasteizko Toponimia I (Hiria)*, *Gasteizko Toponimia II (Malizaeza)* eta *Gasteizko Toponimia III (Gasteizko Ubarrundia)*.



Urdinez, Malizaeza. Gorriz, Ubarrundia.



V. LITERATURA

Euskaltzaindiko Literatura arloa bi sail nagusitan ari da lanean. Batetik, herri literaturaren adierazpen desberdinak aztertzen dira. Bestetik, euskal literaturari buruzko ikerketei ekin zaie, aro eta gai ezberdinak jorratuz.

V.1. Herri Literatura batzordea

Xahoren kantutegia argitaratzeko prestaketa-lanaren jarraipena egiten segitu du batzordeak. Antonio Zavalaren omenezko liburua prestatzen ari da, eta Herri Literatura jardunaldietako testu hautatuaren argitalpenean lanean jardun du.

Bestalde, urtero bezala, Xalbador Egunaren antolakuntzan parte hartu du.

V.2. Literatura Ikerketa batzordea

“Agosti Xaho eta erromantizismoa” jardunaldien txostenak bildu eta zuzendu ostean, *Euskera* 2011, 56, 3 agerkarian argitaratu dira. Aurkezpena abenduan egin da, Gipuzkoako Foru Aldundian. Bestalde, Euskal Literaturaren Antologia egiten ari da batzordea. *Euskal Erdi Aroa eta XVI. mendea* lehen liburukiaren testuak eta sarrera osaturik geratu dira.

Eusebio Erkiagaren jaiotzaren mendeurrena dela-eta, omenezko jardunaldia prestatu du batzordeak, Deustuko Unibertsitatearekin batera. Azaroaren 30ean egin da, Unibertsitate horretako Bibliotekan.

V.3. Herri Literatura Corpora egitasmoa

Egitasmo honek Herri Literaturaren datutegia sortzea du helburu, hau da, euskaraz herri literaturaz idatzitako testu-masa handiak biltzea eta ezaugarri linguistikoaz markatzea. *Auspoa* bildumaren hiztegia ere lantzen ari da.



Miren Agur Meabe, Iratxe Retolaza eta Igone Etxebarria, Eusebio Erkiagaren omenezko jardunaldian, Deustuko Unibertsitatean.



AKADEMIA JARDUERA

VI. JAGON SAILA

Euskaltzaindiak sorreratik du Jagon Saila, bere helburuetan hizkuntzaren jagotea, zaintzea, alegia, ezarria duelako. Sail hau bi batzordetan dago banatua: Corpus eta Sustapen.

VI.1. Corpus batzordea

Euskararen corpora jagoteaz arduratzen da, helburutzat hizkuntzaren kalitatea harturik. Honen barruan JAGONET zerbitzua dago, galderen eta erantzunen datu-basea.

Batzordeak *Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa* izeneko lana aurkeztu du Donostian, urtarrilean. Liburua Akademiak argitaratzen duen *Jagon* bildumaren 14. zenbakia da eta Euskaltzaindiaren Corpus batzordeak landu du, Pello Esnal batzordekideak koordinatu duelarik.

Otsailean, izen bereko jardunaldia egin du, Luis Villasante Euskararen Ikerlanean. Jardunaldiari Andres Iñigo Jagon sailburuak eman dio hasiera, eta Pello Esnal, Xabier Mendiguren Bereziartu, Andres Urrutia eta Igone Etxebarria hizlari izan dira. Hitzaldien ostean, mahai-ingurua egin da. Partaideak, hauexek: Jesus Mari Agirre Eusko Legebiltzarreko Itzulpen, Zuzenketa eta Interpretazioko teknikaria; Karlos del Olmo, Donostiako Udaleko itzultzaile-interpretea; eta Xabier Aristegieta Nafarroako Parlamentuko itzultzaile eta interpretea. Moderatzailea Paskual Rekalde izan da, Corpus batzordeko idazkaria.

VI.2. Euskalkien Lantaldea

Lantaldea “Euskalkietatik euskara batura: nola osatu Hiztegi Batua” egitasmoa lantzen ari da. Aurten *Labayru Hiztegi*ko **E** eta **F** letretako hitz-zerrendak aztertu dira, eta **G** letrari dagokiona aztertzen hasi da. *Hiztegi Batuan* sartzeko proposatutako hitz-zerrendak eta txostenak prestatu dira.

VI.3. Sustapen batzordea

Batzordea hizkuntzaren estatusaz arduratzen da. Aurten, XVI. Jagon Jardunaldietan aurkeztutako hitzaldiak eta txostenak bildu eta *Eusker*a agerkarian (2011, 56, 3) argitaratu dira, “Arabatik Arabara” goiburupean. Abenduan aurkeztu da, Gipuzkoako Foru Aldundian.

Bestalde, aurten XVII. Jagon Jardunaldiak egin ditu, “Euskararen oraina eta geroa Ipar Euskal Herrian” gaiaren inguruan.

AKADEMIA JARDUERA

Alazne Gorrotxategi eta Joseba Intxausti,
 “Euskararen Historia Soziala. Argibide
 bibliografikoak” webguneko atalaren
 aurkezpenean.



VI.4. Joanes Etxebarri Egitasmoa (Euskararen Historia Soziala-EHS)

Egitasmoak euskarak eta berarekin harremanetan izan diren hizkuntzek denboran zehar izandako gizarteko izaera-bizierak aztertzen ditu; iraganaren jarioan datozen gizarteko hizkuntzekiko usteak, zientziak, antolaerak, egoerak, jarrerak, jokabideak, aldakuntzak eta abar ikertu nahi ditu, Linguistika, Soziologia eta Historiografiaren artean kokatuz.

2012an, metodologia-ereduaren txostenaren lehen bertsioaren zati handi bat idatzi da.

144 sarrera dituen zerrenda bibliografikoa osatu da. *Abbadiaren sariak, afixen argitan*. *Berariazko euskalgintzaren argitze-saioa* liburua amaitu, eta argitaratzeko prest utzi da. Bestalde, *Euskal aipamenak arabiar iturrietan* liburua eta *Euskara eta euskal gizartea XVII. eta XVIII. mendeetan: lehen hurbilpena* ikersaioa idatzita geratu dira.

Uztailean, *Euskararen Historia Soziala (EHS)*. *Argibide bibliografikoak* deritzan liburuaren edukia Euskaltzaindiaren webgunean jarri da, bertan izen bereko atal bat kontsultazeko zabalduz. Horretaz gain, datu-basea elikatzen jarraitu da, eta HABErekiko hitzarmena garatuz, hainbat liburu eta dokumentu berri eskaneatu da.



VII. EGITURAZKO BATZORDEAK

VII.1. Azkue Biblioteka batzordea

Batzordeak Azkue Bibliotekako lanen jarraipena egin du 2012. urtean zehar. Horrez gainera, *Azkue Biblioteka eraberritzeko proposamena* izeneko txostena prestatu da eta Zuzendaritzari aurkeztu zaio.

Bestalde, Piarres Lafitteren artxiboaren inbentarioa aurkeztu eta onartu da, eta katalogazio-fasea bukatutzat eman da. Orobat, Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren jatorrizko grabaketa guztien babes-kopia berri bat egin da euskarri berri batean eta, bide batez, soinu-zuko funts artxibistiko hori sakonki aztertze baliatu da. Horren emaitza da, *EHHA soinu-zuko materiala. Inbentarioa (2012)* izeneko txostena.

VII.2. Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak batzordea (IKT)

Euskaltzaindiak sortzen dituen edukiei behar bezalako zabalkundea ematea da batzordearen eginkizuna, teknologia berriek eskaintzen dituzten baliabideak erabiliz, eta erabilera-baldintzak aztertuz.

2012an, *Anaitasuna* aldizkariaren Interneteko hemerrotekan aldaketa batzuk egin ditu, eta bilatzaile berriua gehitu. Luis Villasante zenaren lan guztiak digitalizatu eta webguneratu dira, bai eta *Euskararen Historia Soziala (EHS)*. *Argibide bibliografikoak* deritzan liburuaren edukia ere. *Nafarkaria*, *Euskaldun Egunkaria*-k hamaika urtez kaleratu zuen Nafarroako gehigarria prest utzi da webguneratzeko.

Halaber, *XX. mendeko Euskararen Corpus Estatistikoaren* datutegia eguneratu eta sarean jarri da. 2012rako argitalpenen bertsio elektronikoak webguneratu dira, *Euskal Onomastikaren Datutegiko* lekukotasunak eta EHHA lantaldearentzako barnerako aplikazioa berri du.

VII.3. Euskaltzaindiaren Historia egitasmoa

Akademiaren historia jasotzea du xede egitasmo honek. 2012. urtean, “Manuel Lekuona (1966-1970) azpiatala garatu da, eta “Luis Villasante (1970-1988)” eta “Jean Haritschelhar (1989-2004)” azpiatalen eskemak egin dira. Hiru kasutan, garaiko euskaltzain emeritu, oso, ohorezko eta urgazleei elkarrizketak egin zaizkie.

Dokumentazio grafikoaren sailkapena egin da

VII.4. Erlea aldizkaria

2012an *Erlea* aldizkariaren seigarren zenbakia argitaratu da.



AKADEMIA JARDUERA

VIII. R.M. AZKUE SARIAK

Euskaltzaindiak Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioarekin batera idazle gaztetxoek lanak saritzen ditu urtero. Sariak bi atal ditu: narrazioa eta olerkia. Genero bakoitzak bi maila ditu: A maila, 11 eta 14 urte bitarteko gazteentzat; eta B maila, 15 eta 18 urte bitartekoentzat. R.M. Azkue sariak idazle gazteak literatura mundura erakartzea dute helburu nagusia.

Hona hemen 2012ko R.M. Azkue saria irabazi dutenak:

Saria	Lan saritua	Egilea	Ikastegia
A: narrazioa 10 - 13 urte	1) <i>Gauza txikiak</i> 2) <i>Altxa porru!</i> 3) <i>Bizi berri baten bila</i> Aipamenak: <i>Maialenen egunerokoa</i> <i>Abestia</i> <i>Errespetua</i> <i>Pierre Heme</i>	Izar Foroni Iñaki Arizmendi Uxue Imaz Nerea Urrestilla Ana Zubiaurre Olatz Erkoreka Jon Foruria	Loinazpe (Beasain) Urola ikastola (Azpeitia) Beasain Inst. (Beasain) Urola ikastola (Azpeitia) Elgoibar ikas. (Elgoibar) S. Altube (Gernika) S. Altube (Gernika)
A: poesia 10 - 13 urte	Ez da aurkeztu lanik		
B: narrazioa 14 - 17 urte	1) <i>Metamorfosia</i> 2) <i>Goian bego</i> 3) <i>06:18</i>	Garazi Mugarza Markel Txasko Maialen Akizu	J. Zumarraga (Durango) Mitxelena (Errenteria) Iparragirre (Urretxu)
B: poesia 14 - 17 urte	1) <i>Agerraldi perfektuetan</i> 2) <i>Baztertutako zapata gehiago egon ez dadin</i> 3) <i>Tangoaren eskean</i>	Eider Perez Maialen Elortza Eider Perez	Santo Tomas (Donostia) Haurtzaro (Oiartzun) Santo Tomas (Donostia)

Epaimahaikoak hauek izan dira:

- **A** mailan: Yolanda Arrieta, Igone Etxebarria eta Antton Irusta.
- **B** mailan: Joseba Butron, Jabier Kaltzakorta eta Mayi Iza.

Bestalde, azaroan, *Narrazioak eta olerkiak 2011* liburua kaleratu da. Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak eta Euskaltzaindiak deitutako 2011ko Resurreccion Maria Azkue sarietan irabazle izandako narrazioak eta olerkiak batzen dira liburu honetan. Hauen lanak jaso dira: Ane Lapeira, Maddi Petralanda, Evangelina Descalzo, Julen Antxia, Xabier Oianguren, Amaia Rodriguez, Malen Barriola, Maite Larrarte, Maialen Akizu, Ainhoa Urien, Mikela Atxoarena, Maialen Elortza eta Mikel Aranburu.



R.M. Azkue sariketako 2012ko irabazleak.



3

Erakundearen zerbitzuak

Bilboko Plaza Barrian du Euskaltzaindiak egoitza. Bertatik eramaten dira azpiegiturazko koordinazio lanak eta hor kokatzen dira eremu honi lotuta dauden zerbitzuak: Idazkaritza, Ekonomia, Azkue Biblioteka, Onomastika, Argitalpen eta Banaketa, Prentsa eta Komunikazioa eta Informatika eta Telekomunikazio zerbitzuak. Jagonet Zerbitzua, aldiz, Donostiako ordezkartzan dago.

Erakundeei, elkarteei nahiz gizabanakoei hurbileko zerbitzuak eskaintzeko asmoarekin, egoitzaz gainera, Euskal Herriko lau hiriburutan kokatu ditu Euskaltzaindiak bere ordezkartzak: Baiona, Donostia, Gasteiz eta Iruñean. Garrantzi handikoak dira jendearekiko harremanak: hizkuntzarekiko kontsultak, ziurtagiriak eta talde-bisitak, besteak beste. Hauek, egoitzatik eta ordezkartzetatik bideratzen dira.

Bost bulego horietara etortzen diren herritarren eskabideak etengabe erantzuten dira ponte-izen eta deituren ziurtagiriak eginez, gehienbat, baina baita toponimia eta euskararekiko beste gai ugari ere aztertuz. Egoitzan eta ordezkartzetan ponte-izen eta deiturei buruzko ziurtagiriak egiten dira.

Horrezaz gain, egoitzako eta Gasteizko ordezkartzaren aretoak kultura erakunde eta elkarteei irekirik egon dira euskararen inguruko gai, hitzaldi, aurkezpen, bilkura eta prentsaurrekoetarako.

I. AZKUE BIBLIOTEKA

II. ONOMASTIKA ZERBITZUA

III. ARGITALPEN ZERBITZUA

IV. ARGITALPENEN BANAKETA ZERBITZUA

V. IKT ZERBITZUA

VI. PRENTSA ETA KOMUNIKAZIOA ZERBITZUA

VII. JAGONET ZERBITZUA



III.1. AZKUE BIBLIOTEKA

Liburuek, aldizkariak eta antzekoak osatzen dute *Azkue Bibliotekaren Katalogoa* (ABK). Lau prozesu desberdin sartzen dira hemen: erosketa/eskuraketa, katalogazioa, erabiltzaileekikoak (kontsulta, mailegua, kopia) eta mantentzea. Azkue Biblioteka Pruden Gartziak zuzentzen du.

2012an, 461 sarrera berri egin zaio ABK katalogoari eta horietatik 151 osorik katalogatu dira. Horietatik 97 *Euskera* agerkariari dagozkio eta beste 17 Euskaltzaindiaren argitalpenei.

Azkue Bibliotekaren Artxiboa (ABA) zehatz-mehatz aztertu da. Horren ondorioz, autoritate guztiak araztu dira eta ezaugarri tekniko berberen arabera berridatzi dira, lehengo hiru datu-baseak bakarrean bilduz. Une honetan 6.366 autoritate-sarrera daude, datu-base bakarrean, araztu eta berdin egituraturik. Hortaz gain, Argazki Artxiboaren (ABI) mantentzea egin da, 2011ko dossier guztiak (94) ezarritako protokoloen arabera kudeatuz. Halaber, ABA-RMA ondarearen katalogotik 1.510 dossier digital dagozkien fitxekin estekatu dira

(ondare osoaren %70) eta artxibo administratiboaren (ABA-EUS) katalogazioan aurrerakada txiki bat egin da, 1919-1921 tarteari zegozkion dosierrak katalogatuz (28).

Artxiboaren esparruan ere, Xipri Arbelbideren soinuazko ondarea (ABA-XAR) eta *Iparraldeko Toponimia Ikerketa* ondarea (ABA-ITI) digitalizatzeko eta katalogatzeko plangintza zehatzak diseinatu eta onartu dira, 2013an betetzeko.

Gainera, euskaltzainburu izan zen Luis Villasanteren idazlan guztien sareratzean kolaboratu da. Halaber, Basilio Saroberen eta Pello Joxe Aranburu Ugartemendiaren dohaintza dokumentalak jaso eta kudeatu dira. Orobat, bi liburu-erakusketa antolatu dira, bata *Euskal Pizkundeaz*, Bilboko Liburu Azokaren barruan, eta bestea *Euskal epikaz*, Bizkaiko Aldundiak antolatutako Ondare Jardunaldien baitan.



Azkue Bibliotekako irakurgela.



ERAKUNDEAREN ZERBITZUAK

III.2. ONOMASTIKA ZERBITZUA

Hiru arlo nagusitan banatzen da lana: deiturak, ponte izenak eta leku-izen edo toponimoak. Erakunde, enpresa zein gizabanakoengandik datoz galderak. Batzuek berehalako erantzuna behar izaten dute -erregistratzeko jaioberriak, adibidez- eta beste batzuek ikerketa luzeagoa. Mikel Gorrotxategi da zerbitzu horren arduraduna.

2012an, 120 pertsona etorri dira egoitzara euren kontsultak egitera, gehien bat pertsona-izenen inguruan, 71; deiturez (22) eta leku izenez (27) ere galdetu dute. Bestalde, 850 telefono dei baino gehiago jaso dira, bai norbanakoek eginda, bai eta erregistroek ere. Azken hauek 178 dei egin dituzte, pertsona-izenen egokitasunez eta deituren idazkerez.

Lekuek eta deiturek sortutako zalantzak kontsultatzen badira ere, batez ere pertsona izenak dira interes handien sortzen dutenak. Hala, 700 kontsulta inguru jaso dira izenei buruz, eta horietatik 200 kontsultatik gora egin dituzte banakakoek, eta beste horrenbeste erregistroek. Bestalde, posta elektronikoen bitartez ere egiten dira galderak eta hemen ere izenak dira gehien kontsultatzen direnak. 1.200etik gora mezu

erantzun dira, zifra horren erdia pertsona-izenei dagokielarik.

EUDELekin indarrean dagoen hitzarmenak jaso bezala, udalei onomastika alorreko aholkularitza ematen zaie. Ondoko udalei eman zaie laguntza: Aiara, Amurrio, Añana, Areatza, Azkoitia, Bergara, Berriz, Ea, Eibar, Ekora / Yécora, Elgoibar, Galdakao, Gasteiz, Getxo, Iruña Oka, Ispaster, Kuartango, Lagran, Mallabia, Markina-Xemein, Soraluze, Tolosa, Zalla, Zamudio, Zaratamo, Zarautz eta Zornotza.

Gainera, ondoko kale izendegiak prestatu ditu: Donibane Garazi, Arbona, Lehuntze, Gasteiz, Trapagaran, Iruña Oka, Elorrio eta Gernika.

Bestalde, zerbitzuko arduradunak irratsaio bat egin du Bizkaia Irratian, Bizkaiko toponimiaz. Eta ondoko hitzaldi eta aurkezpenak egin ditu: Aiara eta Elgoibarko maparen aurkezpena; Leioako liburuaren aurkezpena; Eako ikerketaren aurkezpena; Enkarterriko euskaltegian eta San Viator ikastetxean hitzaldia, izenez eta Euskaltzaindiaz.

Horretaz gain, Onomastika batzordearen lanak ere egiten ditu.



ERAKUNDEAREN ZERBITZUAK

III.3. ARGITALPEN ZERBITZUA

Rikardo Badiolak zuzentzen duen Argitalpen Zerbitzuaren bitartez, jarraiko argitarabidea gauzatu da 2012. urtean:

- *Euskera, 2011,1-2.* Egileak: Batzuk.
 - *Euskera, 2011,3.* Egileak: Batzuk.
 - *Euskaltzaindiaren 2011ko Oroitidazkia (euskaraz, frantsesez, gaztelaniaz eta ingelesez)*
 - *Itzulpengintza eta itzulpen-praktika Joseba Sarrionandiaren lanetan.*
Egilea: Aiora Jaka.
 - *Koldo Mitxelenaren zinema- eta liburu-kritiketako diskurtso estrategiak: enuntziatu parentetikoak.*
Egilea: Agurtzane Azpeitia.
 - *Jon Mirande, olerkaria.*
Egilea: Txomin Peillen.
 - *Antoine D'Abbadia, Abbadiaz.*
Egilea: Jean-Louis Davant.
 - *Gratien Adema "Zaldubi": Gaineratikoen bilduma.*
Prestatzailea: Henri Duhau.
 - *Euskararen Herri Hizkeren Atlas IV.*
Egileak: Batzuk.
 - *Nafarroako ipar-mendebaleko hizkeren egitura geolinguistikoa.*
Egilea: Amaia Apalauza.
 - *Erlea aldizkariaren 6. zenbakia.*
Zuzendaria: Bernardo Atxaga.
Egileak: Batzuk.
 - *Narrazioak eta olerkiak, 2011.*
Egileak: Batzuk.
 - *Euskaltzaindia eta Iparraldea liburuxka.*
Prestatzailea: Jean-Baptiste "Battitu" Coyos.
- Argitalpen hauez gain ere, aurreko urteetan kaleraturiko zenbait lanen bertsio digitalak webgunean integratu dira:
- *Euskera 2010,3.*
Egileak: Batzuk.
 - *Perpetua Saragueta: eskuidatziak eta hiztegia.*
Egilea: Andres Iñigo.
 - *Ikastolen mugimendua. Dabilen herria.*
Egilea: Batzuk.
 - *Pirinioetako hizkuntzak: lehen eta oraina. Euskaltzaindiaren XVI. Biltzarra.*
Egileak: Batzuk.
 - *Gramatika emendakinak. Zuberoako euskaraz.*
Egilea: Jüje Etchebarne.



Béatrice Lahargoue, Junes Casenave-Harigile, Andres Urrutia eta Jean-Louis Davant,
Casenave-Harigileren *Xiberoko antzertia edo pastorala* liburuaren aurkezpenean, Maulen.



ERAKUNDEAREN ZERBITZUAK

III.4. ARGITALPENEN SALMENTA ZERBITZUA

2012an, Euskaltzaindiak 14 argitalpen publikatu ditu. Batzuk koedizioan badira ere, argitalpen ia guztien salmenta osoa Akademiak egiten du. Oso kasu gutxitan, koeditoreak ere saltzen du. Ale gehienak banatzaileen bidez saltzen dira (2012: 1.026 ale), azoka eta zuzeneko eskarien bidez ere (2012: 491 ale), eta liburu dendei ale gutxi batzuk (2012: 24 ale). Jon Artza da zerbitzu honen arduraduna.

Akademia DILVE proiektuan integratua dago eta Euskadiko Editoreen Gremioko kide da. Euskaltzaindiaren argitalpen ugari, formatu desberdinetan, www.euskaltzaindia.net webgunean ikusgai eta erabilgarri daude.

2012an argitaratu diren argitalpenen artean jendarteko zabalkunde handikoak izan dira, besteak beste, honakoak: *Hitz-ordena*. *Erabilera estrategikoa*; *Xiberoko antzertia edo pastoral*; *Euskaltzaindiaren Hiztegia*. *Adierak eta adibideak*; eta *Erlea* aldizkari literarioaren 6. zenbakia.

Bestalde, *Euskera* agerkariak 212 harpidedun dauzka 2012. urtearen bukaeran.



Euskaltzaindia Durangoko Azokan.



III.5. INFORMATIKA ETA TELEKOMUNIKAZIO ZERBITZUA

IKT batzordearen zuzendaritzapean, berrikuntza teknologikoaren arloan, lan hauek egin dira, besteak beste: Euskaltzaindiaren argitalpenen bertsio elektronikoak eta arau-erabakiak webgunearen bidez zabaltzeko prestatzea, digitalizatutako funts eta katalogo digitalak webgunearen bidez zabaltzeko prestatzea (*Nafarkaria*, *Anaitasuna* aldizkaria eta Luis Villasanteren idazlanak), Euskaltzaindiaren argitalpenetan txertatzeko datu-espazioak (Euskaltzaindiaren Hiztegia, LEF, EHHA), EHHA lantaldearen barnerako aplikazioak berritzea, XX. mendeko corpus estatistikoaren bilatzailea berritzea.

Iñaki Kareagaren ardurapean garatzen den zerbitzu honi sistema informatikoak mantentzea ere badagokio.

III.6. PRENTSA ETA KOMUNIKAZIO ZERBITZUA

Zerbitzu honek honako helburu hauek betetzen ditu: Euskaltzaindiaren eta komunikabideen arteko loturak sendotzeko, gizarteak Akademiaren jardueraren berri izatea eta Akademiak, elkarlanean, beste erakunde eta elkarteekin egiten dituen ekintzen eta eginkizunen berri ematea. Amaia Okariz da arduraduna.

Bestalde, euskaltzainen curriculumak egitea eta eguneratzea zerbitzu honi dagokio, webguneko albisteak gaurkotzearekin batera. Erakundearen hileroko barnerako informazio buletina, *Albiste Orria* deritzana, eta Oroitidazkia egiten ditu idazkariordearekin batera. *Plazaberri* bloga kudeatzea ere zerbitzu honen zeregina da. 2012an, 240 albiste argitaratu ziren blogean.


2012an, egindako lanen artean hauek aipa daitezke: Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa jardunaldia; “Euskarari gorazarre / El euskera, una lengua con futuro” izeneko jardunaldiak; Luis Villasanteren lanen digitalizazioa; ageriko bilkurak eta jardunaldiak; euskaltzainen heriotzak (Jose Luis Alvarez Enparantza “Txillardegí”, Karmele Esnal eta Josu Arenaza), hilberri txostenak (Vahan Sarkisian, Fernando Mendizabal, Xabier Gereño eta Jose Antonio Arana Martija), *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren aurkezpena*, edota *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*a (EHHA) IV. liburukiaren eta bestelako argitalpenak, besteren artean.

III.7 JAGONET

JAGONET Euskaltzaindiaren kontsulta-eta aholku-zerbitzua da eta 11 urte ditu.

JAGONETen eginkizuna euskararen erabilera zuzena eta egokia eragitea da, euskararen erabilera argitzea, euskaltzaleon lagungarri. Euskaltzaindiaren webgunean JAGONETeko galde-erantzunen datu-basea kontsulta daiteke. Azkenik, euskaltzaleak bilatzen duena hor ere aurkitzen ez badu, orduan Euskaltzaindiari bidal diezaiotke bere zalantza JAGONETeko galdelekura. Euskaltzaindiaren Interneteko galdeleku hori posta elektronikoko bidezko zerbitzu zuzena eta banakakoa da, eta pribatua galdegilearekiko.

2012ko datuak ondoko hauek dira: JAGONETeko datu-basean 566 galde-erantzun ageri dira webgunean, eta 65.792 aldiz bistaratu dira galde-erantzun horiek. Galdelekuan, berriz, 721 galdera jaso dira eta horietako 717 erantzun, banan-banan. Joxe Ramon Zubimendi da zerbitzuaren arduraduna.





4

Herri administrazio eta erakundeak

Euskaltzaindiak hitzarmenak ditu hainbat herri administrazio, erakunde, komunikabide eta elkartekin. Hona hemen zerrenda:

- Eusko Jaurilaritza eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiak
- Nafarroako Gobernua
- Eusko Legebiltzarra
- Cervantes Institutua
- Espainiako Administrazioa
- Euskararen Erakunde Publikoa - Office Public de la Langue Basque
- Frantziako Institutu Geografiko Nazionala
- EUDEL, Bilbo, Donostia, Gasteiz, Iruñea, Baiona, Erandio, Zornotza, Azkoitia, Oiartzun, Berriz, Gernika, Getxo, Sopela, Ajangiz, Berriz, Elgoibar, Okondo, Leioa, Artziniega, Abadiño, Zierbena, Orozko, Gernika-Lumo, Aiara, Sorluze, Mallabia, Getaria
- UZEI
- Euskal Herriko Unibertsitatea
- Udako Euskal Unibertsitatea
- Deustuko Unibertsitatea
- Nafarroako Unibertsitate Publikoa
- Euskaltel
- EITB
- Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa
- Topagunea
- Feve
- Bizkaia Irratia
- Euskarazko Komunikazio Taldea
- Labayru Euskal Kulturaren Erakunde
- Elhuyar Fundazioa
- HABE (Liburutegia)
- Olaso Dorrea Sorrerakunde
- Euskal Herria Irratia
- *Berria* egunkaria
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (HAEE – IVAP)
- Bergarako Irigoyen Patronatua
- Arantzazuko Frantziskotarrak eta Bizkaiko Foru Aldundia
- Unesco Etxea
- *Argia* aldizkaria
- Azkue Fundazioa
- *Deia* egunkaria
- *Noticias de Gipuzkoa* egunkaria
- *El Diario Vasco* egunkaria
- Mondragon Unibertsitatea
- Mintzola Fundazioa
- Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa
- Etxepare Euskal Institutua
- Jabetza eta Merkataritza
- Erregistratzaileen Elkargoaren Euskal Herriko Lurralde-Dekanotza
- Errioxako Unibertsitatea
- Bilbo Zaharra euskaltegia
- Kutxabank
- Euskadiko Kutxa
- Gipuzkoako Kutxa
- Caja Vital Kutxa
- Euskal Ikasketetarako Fundazio Popularra
- Soziolinguistika Klusterra
- *Langune* Elkartea
- *Jakin* aldizkaria
- Baionako Mediateka
- *Ikas* Euskal Pedagogia Zerbitzua



1. IKASen eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetza-hitzarmena. Ezkerretik eskuinera, Aines Dufau, Andres Urrutia, Maite Erdozaintzi eta Aurelia Arkotxa.
2. Andres Urrutia eta Maximino Gómez Euskarabidearen zuzendari kudeatzailea, lankidetza-hitzarmena sinatzen.
3. Languneren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetza-hitzarmena. Ezkerretik eskuinera, Fernando Alana, Aurelia Arkotxa, Josu Waliño eta Andres Urrutia.
4. Soziolinguistika Klusterraren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetza-hitzarmena sinatzeko ekitaldia. Ezkerretik eskuinera, Andres Iñigo, Jaime Altuna, Andres Urrutia eta Ibon Usarralde.

5

Webgunea eta gizarteratze lana


Euskaltzaindiaren webguneak 737.906 bisita izan zituen 2012an. Bestalde, webguneko orriek 4.247.414 bistaratze izan zituzten urte berean. Era berean, Akademiaren webgunean gehien bisitatutako edukiak Euskal Onomastikaren Datutegia eta Hiztegi Batua izan dira. Hauek dira datuak:

www.euskaltzaindia.net	2012
1) <i>Bisitak, guztira</i>	737.906
2) <i>web-orrialde bistaratzeak:</i>	
Zuzeneko sarbideak webguneko atarira	157.299
Hiztegi Batua	964.938
Euskaltzaindiaren Arauak	88.320
OEH (Orotariko Euskal Hiztegia)	525.256
JAGONET zerbitzua	64.632
EODA (Euskal Onomastikaren Datutegia)	1.302.223
Argitalpenen katalogoa	59.347
Plazaberri bloga	40.752
Beste guztiak	1.044.647
Web-orrialde bistaratzeak, guztira	4.247.414




Irailaren 20an, Euskaltzaindiaren egoitzan, "Zatoz euskaltegira!" kanpaina aurkeztu da.

2012KO BISITEN ESTATISTIKAK



Hauek dira Euskaltzaindiaren egoitzan izandako bisitak, 2012an:





6

Euskaltzaindiaren Balantzea eta Galdu-irabazien kontua

Oroitidazkian agertzen diren Balantzea eta Galdu-irabazien kontua PKF ATTEST auditoria etxeak ikuskatu ditu. Urteko kontuen ikuskaritza txostenaren arabera, 2012 urteko kontuek, arlo esanguratsu guztietan, 2012ko abenduaren 31n Euskaltzaindiaren ondarearen, egoera finantzarioaren eta data horretan bukatu den ekitaldiari dagozkion eragiketen emaitzen irudi fidela adierazten dute, eta aplikagarria zaien legeria eta araudiari jarraituz osatu dira.

Urte amaierako Balantzea Euskaltzaindiko ondarearen egoera azaltzen duen agiria da, eta erakundeak daukan ondarearen zerranda zehazten du (Aktiboa), ondare hori finantzatu duten baliabideekin batera (Pasiboa).

- Aktiboak erakundeak daukana (eraikuntzak, instalazioak, izakinak, dirua,...) erakusten du.
- Bere aktiboa finantzatzeko erakundeak erabili dituen baliabideak zeintzuk izan diren adierazten du Pasiboak (ondare garbia, hornitzaileak,...).

Urteko Galdu-irabaziak Euskaltzaindiak izan dituen diru-sarrerak eta gastuak islatzen ditu, eta bien arteko diferentziak ekitaldiko emaitza eskaintzen du. 2012ko ekitaldiari dagokionez, hauek dira ondorio nagusienak:

- 1.- Euskaltzaindiak ekitaldi ekonomiko orekatua izan du. Jasotako eta gastatutako kopuruak berdintsuak izan dira.
- 2.- Bizi dugun egoera ekonomiko zailaren ondorioz, Herri Aginteez Euskaltzaindiari eman dizkioten diru-laguntzak beherantz etorri dira, etengabe, azken lau urteotan. 2012a ere ez da izan ezberdina. Horren aurrean Akademiak gastuak egokitu behar izan ditu, lehentasunak ezarri eta partida eta gastu-kontzeptu guztietan efizientzia bilatuz.
- 3.- Testuinguru ekonomiko zaila izan arren, Euskaltzaindiak urte hasieran aurreikusitako plana bete du, eta ahaleginak egin ditu zerbitzu, batzorde nahiz ikerketen bidez gizarteari egiten dion ekarpena gero eta handiagoa eta aberatsagoa izan dadin.

EUSKALTZAINDIAREN BALANTZEA ETA GALDU-IRABAZIEN KONTUA

BALANTZEA (EUROTAN)

AKTIBOA	2012	2011	PASIBOA	2012	2011
AKTIBO EZ-KORRONTEA	985.193	1.126.411	ONDARE GARBIA	1.559.687	1.573.799
Ibilgetu ukiezina	46.275	60.499	Funts propioak	1.276.648	1.278.039
Patenteak, lizentziak, markak eta antzerakoak	14.517	16.986	Aurreko ekitaldietako soberakinak	1.278.039	1.278.039
Aplikazio informatikoak	31.758	43.513	Ekitaldiko gaindikinak	(1.391)	-
Ibilgetu materiala	908.436	1.035.430	Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta ondareak	283.039	295.760
Lurrak eta eraikuntzak	651.274	680.693			
Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala	239.895	354.737			
Abian den ibilgetua eta aurrerakinak	17.267	-			
Epe luzeko finantza-inbertsioak	30.482	30.482	PASIBO EZ-KORRONTEA	82.049	85.649
Gainerako aktibo finantzarioak	30.482	30.482	Epe luzeko doikuntzak	82.049	85.649
AKTIBO KORRONTEA	1.177.194	1.463.656	PASIBO KORRONTEA	520.651	930.619
Izakinak	20.170	43.950	Epe laburreko zorrak	25.953	19.034
Erabiltzaileak eta berezko jarduerarekin lotutako zordunak	10.500	35.760	Gainerako pasibo finantzarioak	25.953	19.034
Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak	705.665	759.728	Hartzeko komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak	486.198	903.835
Hainbat zordun	55.852	40.804	Hornitzaileak	195.768	336.927
Langileria	318	-	Langileria	1.582	40.106
Zordunak, Herri Aginteak	649.495	718.924	Hartzekodunak, Herri Aginteak	288.848	526.802
Epe laburreko finantza-inbertsioak	1.775	1.755	Epe laburreko aldizkatzeak	8.500	7.750
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	439.084	622.463			
AKTIBOA GUZTIRA	2.162.387	2.590.067	PASIBOA GUZTIRA	2.162.387	2.590.067

EUSKALTZAINDIAREN BALANTZEA ETA GALDU-IRABAZIEN KONTUA

GALDU-IRABAZIEN KONTUA (EUROTAN)

Ekitaldia	2012	2011
Erakundearen berezko jardueraren sarrerak	2.841.253	3.601.012
Salmentak, promozioak eta lankidetzaz hitzarmenak	77.062	187.210
Ekitaldiko soberakinari egotzitako dirulaguntzak	2.764.191	3.413.802
Ekoizkin bukatuen eta fabrikazioan dauden ekoizkinen aldaketa	(23.780)	2.493
Ustiapeneko bestelako sarrerak	690	2.861
Pertsonal gastuak	(1.259.648)	(1.443.949)
Soldatak, lansariak eta antzekoak	(972.779)	(1.153.698)
Gizarte-zamak	(286.869)	(290.251)
Ustiapeneko bestelako gastuak	(1.416.752)	(1.997.392)
Kanpoko zerbitzuak	(1.416.076)	(1.917.282)
Tributuak	(314)	(2.346)
Merkataritza eragiketetatik datozen horniduren aldaketak, hondatzeak eta galerak	(362)	(72.764)
Kudeaketa arrunteko bestelako gastuak	-	(5.000)
Ibilgetuaren amortizazioa eta hondatzea	(169.709)	(183.143)
Ekitaldiko soberakinari traspasatutako kapital diru-laguntzak	12.721	4.240
Bestelako emaitzak	13.946	17.913
USTIAPENeko SOBERAKINA	(1.279)	4.035
Sarrera finantzarioak	4.615	4.750
Balore negoziagarriak eta bestelako finantza tresnak	1.015	750
Horniduren eguneratzea	3.600	4.000
Gastu finantzarioak	(4.727)	(8.785)
Hirugarrenetikiko zorrenak	(4.727)	(8.785)
ERAGIKETA FINANTZARIOEN SOBERAKINA	(112)	(4.035)
EKITALDIKO SOBERAKINA	(1.391)	-



EUSKALTZAINDIA